

# JUAN SAN MARTIN ETA GURUTZEAREN ALABEK JASOKO DITUZTE 2003KO URREZKO INTSIGNIAK

▪ Abenduaren 30ean emango zaizkie Udaleko Areto Nagusian

**D**uela zenbait urte hasi zen Hondarribiko Udala herriaren alde lan oparoa egin dutenen aldeko ezagupen moduko bat ospatzen, urrezko intsigniak urtero bi pertsona edo erakunderi emanaz.

2003an Juan San Martin eta Gurutzearen Alaben Kongregazioa izan dira hautatuak. Izenak proposatzeko ardura Alkateak dauka, gero Gobernu Batzordeak onartu behar izaten duelarik.

Guuztiok soberan ezagutzen ditugu aurtengo onespeneak jasoko dituztenak. Alde batetik, Juan San Martin euskaltzalea, 1922an Eibaren jaioa, eta hainbat alorretan murgildua etengabe lanean bizitza osoan. Duela gutxi merezitako omenaldia jaso zuen Koldo Mitxelena Kulturunean bost arratsaldez ospatutako ekitaldi batzuetan, eta orain, 1982az geroztik bere herrikideak direnak eskainiko diote omenaldia.

Beste alde batetik, Gurutzearen Alaben Kongregazioa daukagu. Aurten 100 urte bete dira Hondarribira etorri zirenetik. Hain zuzen ere, 1903. urteko ekainaren 9an iritsi ziren Gurutzearen Alabak gure artera, eta San Jose Ikastetxearen ardura daramate,



Juan San Martin, «Antzinatik gaur egunera, Hondarribia» liburua aurkeztu zuen egunean.

ehundaka haur daudelarik bere erantzunkizunaren menpean.

Egun, 100 urte betetzen dituen gure ikastetxea honelaxe osatzen da: Haurtzaindegiko sei gela, Haur Hezkuntzako beste hiru, Lehen Hezkuntzako sei eta azkenik DBHko lau gela.

Hemendik aurrera **HONDARRIBIA** aldizkaria zure etxean **dohainik** nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

## HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....